

Declaración sobre el derecho al desarrollo

Adoptada por la Asamblea General en su resolución 41/128, de 4 de diciembre de 1986

La Asamblea General,

Teniendo presentes los propósitos y principios de la Carta de las Naciones Unidas relativos a la realización de la cooperación internacional en la solución de los problemas internacionales de carácter económico, social, cultural o humanitario y en el desarrollo y estímulo del respeto a los derechos humanos y las libertades fundamentales de todos, sin hacer distinción por motivos de raza, sexo, idioma o religión,

Reconociendo que el desarrollo es un proceso global económico, social, cultural y político, que tiende al mejoramiento constante del bienestar de toda la población y de todos los individuos sobre la base de su participación activa, libre y significativa en el desarrollo y en la distribución justa de los beneficios que de él se derivan,

Considerando que, conforme a las disposiciones de la Declaración Universal de Derechos Humanos, toda persona tiene derecho a un orden social e internacional en el que se puedan realizar plenamente los derechos y las libertades enunciados en esa Declaración,

Recordando las disposiciones del Pacto Internacional de Derechos Económicos, Sociales y Culturales y del Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos,

Recordando además los acuerdos, convenciones, resoluciones, recomendaciones y demás

Garapenerako eskubideari buruzko Adierazpena

Biltzar Orokorrak onetsia, 1986ko abenduaren 4ko 41/128 ebazpenean

Biltzar Orokorrak,

Kontuan hartuta Nazio Batuen Gutunaren asmo eta printzipioak, nazioarteko lankidetzeta gauzatzeari buruzkoak, bereizketarik egin gabe, arraza-, sexu-, hizkuntza- edo erlijio-arrazoiengatik, nazioarteko arazoak konpontze aldera, arazo horiek ekonomia, gizarte, kultura edo giza izaerakoak direnean, eta guztion giza eskubideen zein oinarritzko askatasunen errespetua garatu nahiz suspertze aldera.

Aitortuz garapena prozesu globala dela, ekonomia, gizartea, kultura eta politika ukitzen dituen, eta beti bilatzen duela biztanleria osoaren eta norbanako guztien ongizatea hobetzea, garapenean parte-hartze aktiboa, askea eta esanguratsua eta garapen horrek eragindako onuren banaketa zuzena oinarri hartuta,

Kontuan izanik, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren xedapenenekin bat etorritz, pertsona orok duela gizarte-ordena eta nazioarteko ordena izateko eskubidea, orden horretan, pertsona horrek oso-osorik bere eskubideak eta Adierazpen honetan aipatu askatasunak gauzatzeko,

Gogoratu Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Ituna, eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna, eta bi-bion xedapenak,

Gogoratu, bestalde, Nazio Batuen eta beste erakunde espezializatuen akordioak, itunak, ebazpenak,

instrumentos pertinentes de las Naciones Unidas y de sus organismos especializados relativos al desarrollo integral del ser humano y al progreso y desarrollo económicos y sociales de todos los pueblos, incluidos los instrumentos relativos a la descolonización, la prevención de discriminaciones, el respeto y la observancia de los derechos humanos y las libertades fundamentales, el mantenimiento de la paz y la seguridad internacionales y el ulterior fomento de relaciones de amistad y cooperación entre los Estados de conformidad con la Carta,

Recordando el derecho de los pueblos a la libre determinación, en virtud del cual tienen derecho a determinar libremente su condición política y a realizar su desarrollo económico, social y cultural,

Recordando también el derecho de los pueblos a ejercer, con sujeción a las disposiciones pertinentes de ambos Pactos internacionales de derechos humanos, su soberanía plena y completa sobre todos sus recursos y riquezas naturales,

Consciente de la obligación de los Estados, en virtud de la Carta, de promover el respeto universal y la observancia de los derechos humanos y las libertades fundamentales para todos, sin distinción de ninguna clase por motivos de raza, color, sexo, idioma, religión, opinión política o de otra índole, origen nacional o social, situación económica, nacimiento u otra condición,

Considerando que la eliminación de las violaciones masivas y patentes de los derechos humanos de los pueblos e individuos afectados por situaciones tales como las resultantes del colonialismo, el neocolonialismo, el apartheid, todas las formas de racismo

gomendioak eta gainerako instrumentu egokiak, hain zuzen ere gizakiaren garapen osoari eta herri guztien aurrerapen eta garapen ekonomikoari nahiz sozialari buruzkoak; eta, aurrekoetan barneratuta ere, deskolonizazioari buruzko instrumentuak, bereizkerien prebentzioa, giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak errespetatu eta betetzea, nazioarteko bakea eta segurtasuna mantentzea eta estatuen artean geroagoko adiskidetasun- eta lankidetzaren harremanak sustatzea, Gutunarekin bat etorritik,

Gogoratuz herri guztiek determinazio askearen duten eskubidea, eta horren ondorioz, halakoek eskubidea euren izaera politikoa askatasunez zehazteko eta euren ekonomia-, gizarte- eta kultura-garapena gauzatzeko,

Gogoratuz, halaber, herrien eskubidea, euren subiranotasuna oso-osorik gauzatzeko, euren baliabide eta aberastasun natural guztien gainean, betiere giza eskubideen inguruan nazioarteko bi itunek xedatutakoaren arabera,

Jakitun izanik, Gutunaren arabera, guztiontzako giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetu unibertsala eta eragina sustatzeko betebeharrak, betiere, inolako bereizketarik egin gabe, arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, politika edo bestelako iritzia, nazio- edo gizarte-jatorria, ekonomia-maila, jaiotza edo beste edozein ezaugarri dela bide,

Kontuan harturik herrien eta norbanakoen aurkako giza eskubideen urratze nabarmenak eta ugariak ezabatzeak lagundu egingo duela gizateriaren zatirik handiena garatzeko inguruabar egokiak sortzen; izan ere, herri eta norbanako horiek dira jarraiko

y discriminación racial, la dominación y la ocupación extranjeras, la agresión y las amenazas contra la soberanía nacional, la unidad nacional y la integridad territorial y las amenazas de guerra, contribuirá a establecer circunstancias propicias para el desarrollo de gran parte de la humanidad,

Preocupada por la existencia de graves obstáculos, constituidos, entre otras cosas, por la denegación de los derechos civiles, políticos, económicos, sociales y culturales, obstáculos que se oponen al desarrollo y a la completa realización del ser humano y de los pueblos, y considerando que todos los derechos humanos y las libertades fundamentales son indivisibles e interdependientes y que, a fin de fomentar el desarrollo, debería examinarse con la misma atención y urgencia la aplicación, promoción y protección de los derechos civiles, políticos, económicos, sociales y culturales, y que, en consecuencia, la promoción, el respeto y el disfrute de ciertos derechos humanos y libertades fundamentales no pueden justificar la denegación de otros derechos humanos y libertades fundamentales,

Considerando que la paz y la seguridad internacionales son elementos esenciales para la realización del derecho al desarrollo,

Reafirmando que hay una estrecha relación entre el desarme y el desarrollo, que los progresos en la esfera del desarme promoverían considerablemente los progresos en la esfera del desarrollo y que los recursos liberados con las medidas de desarme deberían destinarse al desarrollo económico y social y al bienestar de todos los pueblos, y, en particular, de los países en desarrollo,

Reconociendo que la persona humana

egoeren barruan egon daitezkeenak: kolonialismoa, neokolonialismoa, apartheidia, arrazakeria eta arraza-bereizkeria forma guztiak, atzerritarren menderatzea eta okupazioa, nazio-subiranotasunaren, -batasunaren eta -lurraldearen osotasunaren aurkako erasoak eta mehatxuak eta bestelako gerra-mehatxuak,

Kezkaturik, besteak beste, eskubide zibil, politiko, ekonomiko eta sozialen ukatzeak oztopo larriak sor ditzakeelako, oztopo horiek gizakien garapena eta bakoitzaren errealizazio pertsonala eragozten dituztela, eta kontuan hartuta giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak zatiezinak eta elkarri lotuta daudela, eta, era berean, garapena bultzatzeko helburuarekin, berehala eta arreta osoz aztertu beharko litzatekeela eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak aplikatzea, bultzatzea eta babestea; beraz, hori guztiori kontuan hartuta eta horren ondorioz ere, hainbat giza eskubide eta oinarrizko askatasunen bultzatzeak, errespetatzeak eta gozatzeak ezin duela, inola ere, justifikatu beste giza eskubide eta oinarrizko askatasun batzuen ukazioa,

Kontuan hartuta nazioarteko bakea eta segurtasuna ezinbesteko osagaiak direla garapenerako eskubidea gauzatzeko,

Berretsiz desarmatzearen eta garapenaren artean lotura estua dagoela, desarmatzearen inguruan emandako aurrerapenek zeharo bultzatuko litzuketela garapenaren aurrerabideak, eta desarmatze-neurrien ondorioz lortutako baliabideak bideratu beharko liratekeela ekonomiak eta gizarteak aurrera egin dezaten eta herri guztiek ongizatea izan dezaten, batik bat, garapen-bidean dauden herriek, Aitortuz gizakia dela elementurik

es el sujeto central del proceso de desarrollo y que toda política de desarrollo debe por ello considerar al ser humano como participante y beneficiario principal del desarrollo,

Reconociendo que la creación de condiciones favorables al desarrollo de los pueblos y las personas es el deber primordial de los respectivos Estados, Consciente de que los esfuerzos para promover y proteger los derechos humanos a nivel internacional deben ir acompañados de esfuerzos para establecer un nuevo orden económico internacional,

Confirmando que el derecho al desarrollo es un derecho humano inalienable y que la igualdad de oportunidades para el desarrollo es una prerrogativa tanto de las naciones como de los individuos que componen las naciones,

Proclama la siguiente Declaración sobre el derecho al desarrollo:

Artículo 1

1. El derecho al desarrollo es un derecho humano inalienable en virtud del cual todo ser humano y todos los pueblos están facultados para participar en un desarrollo económico, social, cultural y político en el que puedan realizarse plenamente todos los derechos humanos y libertades fundamentales, a contribuir a ese desarrollo y a disfrutar del él.

2. El derecho humano al desarrollo implica también la plena realización del derecho de los pueblos a la libre determinación, que incluye, con sujeción a las disposiciones pertinentes de ambos Pactos internacionales de derechos humanos, el ejercicio de su derecho inalienable a la plena soberanía sobre todas sus riquezas y recursos naturales.

nagusiena garapen-prozesuan eta horregatik garapen-politika orok gizakia hartu behar duela garapenaren parte-hartzaile eta onuradun nagusi bezala,

Aitortuz herrien eta pertsonen garapenerako baldintza onuragarriak sorraraztea dela kasuan kasuko estatuen betebeharririk garrantzitsuena, Jakitun izanik giza eskubideak, nazioarte-mailan, sustatzeko eta babesteko ahaleginekin batera nazioarteko beste ordena ekonomikoa ezartzeko ahaleginak ere behar direla,

Berretsiz garapenerako eskubidea giza eskubide besterenduezina dela eta garapenerako aukera-berdintasuna eskumena dutela herrialdeek zein halakoak osatzen dituzten norbanakoek ere,

Garapenerako eskubideari buruzko ondorengo Adierazpena aldarrikatzen du:

1. artikulua

1. Garapenerako eskubidea giza eskubide besterenduezina da; berorren arabera, gizaki guztiek eta herri guztiek dute eskubidea ekonomia-, gizarte-, kultura- eta politika-garapenean parte hartzeko eta giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiak oso-osorik gauzatzeko, garapen hori lortzen laguntzeko eta berori gozatzeko.

2. Garapenerako eskubideak dakar, berebat, herriek determinazio askerako duten eskubidea egikaritzea, eskubide horretara batzen dela gizakiak aberastasun eta baliabide naturalen gainean duen eskubide besterenduezina gauzatzea, betiere giza eskubideen inguruan nazioarteko bi itunen xedatutakoaren arabera,

Artículo 2

1. La persona humana es el sujeto central del desarrollo y debe ser el participante activo y el beneficiario del derecho al desarrollo.
2. Todos los seres humanos tienen, individual y colectivamente, la responsabilidad del desarrollo, teniendo en cuenta la necesidad del pleno respeto de sus derechos humanos y libertades fundamentales, así como sus deberes para con la comunidad, único ámbito en que se puede asegurar la libre y plena realización del ser humano, y, por consiguiente, deben promover y proteger un orden político, social y económico apropiado para el desarrollo.
3. Los Estados tienen el derecho y el deber de formular políticas de desarrollo nacional adecuadas con el fin de mejorar constantemente el bienestar de la población entera y de todos los individuos sobre la base de su participación activa, libre y significativa en el desarrollo y en la equitativa distribución de los beneficios resultantes de éste.

Artículo 3

1. Los Estados tienen el deber primordial de crear condiciones nacionales e internacionales favorables para la realización del derecho al desarrollo.
2. La realización del derecho al desarrollo exige el pleno respeto de los principios de derecho internacional referentes a las relaciones de amistad y a la cooperación entre los Estados de conformidad con la Carta de las Naciones Unidas.
3. Los Estados tienen el deber de cooperar mutuamente para lograr el desarrollo y eliminar los obstáculos al desarrollo.

Los Estados deben realizar sus

2. artikulua

1. Gizakia garapenaren elementurik nagusia da eta garapenerako eskubidearen parte-hartzaile aktiboa eta onuraduna izan behar du.
2. Gizaki guztiek dute, banaka edo taldean, garapenaren erantzukizuna, kontuan izanik bere giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak errespetatzeko beharra eta gizakiaren beraren betebeharrak erkidegoarekiko; izan ere, hori da gizakia askatasunez eta osotasunean pertsona egiteko eremu bakarra, eta, ondorenez, gizakiek garapenerako ordena politiko, sozial eta ekonomiko egokia sustatu eta babestu behar dute.

3. Estatuek garapenerako politika egokiak egiteko eskubidea eta eginbeharra dute biztanleria osoaren eta norbanako guztien ongizatea hobetzeko helburuarekin, betiere, garapenean parte-hartze aktiboa, askea eta esanguratsua eta garapen horrek eragindako onuren banaketa zuzena oinarri hartuta,

3. artikulua

1. Estatuen eginbehar nagusia da nazio nahiz nazioarteko baldintza onuragarriak sorraraztea, garapenerako eskubidea gauzatzeko.

2. Garapenerako eskubidea gauzatzek berarekin dakar nazioarteko zuzenbidearen printzipioak osotasunean errespetatzea, estatuen arteko adiskidetasun- eta lankidetzaharremanei dagokienez, Nazio Batuen Gutunarekin bat etorritik.

3. Estatuen eginbeharra da elkarrekin lan egitea garapena lortzeko eta garapenerako oztopoak ezabatzeko.

Estatuek euren eskubideak eta

derechos y sus deberes de modo que promuevan un nuevo orden económico internacional basado en la igualdad soberana, la interdependencia, el interés común y la cooperación entre todos los Estados, y que fomenten la observancia y el disfrute de los derechos humanos.

Artículo 4

1. Los Estados tienen el deber de adoptar, individual y colectivamente, medidas para formular políticas adecuadas de desarrollo internacional a fin de facilitar la plena realización del derecho al desarrollo.

2. Se requiere una acción sostenida para promover un desarrollo más rápido de los países en desarrollo.

Como complemento de los esfuerzos de los países en desarrollo es indispensable una cooperación internacional eficaz para proporcionar a esos países los medios y las facilidades adecuados para fomentar su desarrollo global.

Artículo 5

Los Estados adoptarán enérgicas medidas para eliminar las violaciones masivas y patentes de los derechos humanos de los pueblos y los seres humanos afectados por situaciones tales como las resultantes del apartheid, todas las formas de racismo y discriminación racial, el colonialismo, la dominación y ocupación extranjeras, la agresión, la injerencia extranjera y las amenazas contra la soberanía nacional, la unidad nacional y la integridad territorial, las amenazas de guerra y la negativa a reconocer el derecho fundamental de los pueblos a la libre determinación.

eginbeharrak gauzatu beharko dituzte nazioarteko ordena ekonomiko berria sustatzeko, betiere kontuan izanik ordena berri horrek oinarri hartuko dituela, besteak beste, berdintasun subiranoa, elkarren arteko mendekotasuna, estatu guztien arteko interes erkidea eta lankidetzaz; eta sustatu beharko dute giza eskubideen betetzea eta horien gozamena.

4. artikulua

1. Estatu guztien eginbeharra da neurriak hartzea, banaka edo modu kolektiboan, nazioarteko garapenerako politika egokiak egin daitezen, garapenerako eskubidea osotasunean gauzatzea errazteko helburuarekin.

2. Garapen-bidean dauden herrien garapen azkarragoa sustatzeari begira, egingiza iraunkorra behar da.

Garapen-bidean dauden herrien ahaleginen osagarri bezala, ezinbesteko da nazioarteko lankidetzaz eraginkorra, herri horiei emateko baliabide eta erraztasun egokiak garapen globala sustatzeko.

5. artikulua

Estatuek neurri indartsuak hartuko dituzte herrien eta norbanakoen aurkako giza eskubideen urratze nabarmenak eta ugariak ezabatzeke; izan ere, herri eta norbanako horiek dira jarraiko egoeren barruan egon daitezkeenak: apartheid, arrazakeria eta arraza-bereizkeria forma guztiak, kolonialismoa, atzerritarren menderatzea eta okupazioa, nazio-subiranotasunaren, -batasunaren eta -lurraldearen osotasunaren aurkako erasoak, atzerritarren esku-sartzea eta mehatxuak, bestelako gerra-mehatxuak eta herriek determinazio aserako duten oinarrizko eskubidea aitortzeko ukazioa.

Artículo 6

1. Todos los Estados deben cooperar con miras a promover, fomentar y reforzar el respeto universal y la observancia de todos los derechos humanos y las libertades fundamentales de todos, sin ninguna distinción por motivos de raza, sexo, idioma y religión.
2. Todos los derechos humanos y las libertades fundamentales son indivisibles e interdependientes; debe darse igual atención y urgente consideración a la aplicación, promoción y protección de los derechos civiles, políticos, económicos, sociales y culturales.
3. Los Estados deben adoptar medidas para eliminar los obstáculos al desarrollo resultantes de la inobservancia de los derechos civiles y políticos, así como de los derechos económicos, sociales y culturales.

Artículo 7

Todos los Estados deben promover el establecimiento, mantenimiento y fortalecimiento de la paz y la seguridad internacionales y, con ese fin, deben hacer cuanto esté en su poder por lograr el desarme general y completo bajo un control internacional eficaz, así como lograr que los recursos liberados con medidas efectivas de desarme se utilicen para el desarrollo global, en particular de los países en desarrollo.

Artículo 8

1. Los Estados deben adoptar, en el plano nacional, todas las medidas necesarias para la realización del derecho al desarrollo y garantizarán, entre otras cosas, la igualdad de oportunidades para todos en cuanto al acceso a los recursos básicos, la educación, los servicios de salud, los

6. artikulua

1. Estatu guztiek elkarrekin lan egin behar dute giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetu unibertsala eta eragina sustatzeko, bultzatzeko eta indartzeko, inolako bereizketarik egin gabe, arraza-, sexu-, hizkuntza- edo erlijio-arrazoiengatik.
2. Giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak zatiezinak dira eta elkarri lotuta daude, eta arreta bera eta berehalako hausnarketa egin behar da eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak aplikatzeko, bultzatzeko eta babesteko orduan.
3. Estatuak neurriak hartu behar dituzte garapenerako oztopoak ezabatzeko, halakoak sortzen baditu eskubide zibilen nahiz politikoen eragin-ezak, edota, modu berean, eskubide ekonomiko, sozial edo kulturalen eragin-ezak.

7. artikulua

Estatu guztiek sustatu behar dute nazioarteko bakea eta segurtasuna ezartzea, mantentzea eta indartzea eta, helburu horretarako, euren esku dagoen guztia egin behar dute desarmatze orokorra eta osoa lortzeko, nazioarteko kontrol eraginkorren pean, eta baita desarmatze-neurri egokien ondorioz lortutako baliabideak erabiltzea garapen globala lortzeko ere, bereziki, garapen-bidean dauden herrien kasuan.

8. artikulua

1. Estatuak beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte, nazio-mailan, garapenerako eskubidea gauzatzeko eta, era berean, bermatuko dute, besteak beste, aukera-berdintasuna guztientzat, zertarako eta oinarrizko baliabideak, hezkuntza, osasun-zerbitzuak, elikagaiak, enplegua eta

alimentos, la vivienda, el empleo y la justa distribución de los ingresos.

Deben adoptarse medidas eficaces para lograr que la mujer participe activamente en el proceso de desarrollo.

Deben hacerse reformas económicas y sociales adecuadas con objeto de erradicar todas las injusticias sociales.

2. Los Estados deben alentar la participación popular en todas las esferas como factor importante para el desarrollo y para la plena realización de todos los derechos humanos.

Artículo 9

1. Todos los aspectos del derecho al desarrollo enunciados en la presente Declaración son indivisibles e interdependientes y cada uno debe ser interpretado en el contexto del conjunto de ellos.

2. Nada de lo dispuesto en la presente Declaración debe ser interpretado en menoscabo de los propósitos y principios de las Naciones Unidas, ni en el sentido de que cualquier Estado, grupo o persona tiene derecho a desarrollar cualquier actividad o realizar cualquier acto cuyo objeto sea la violación de los derechos establecidos en la Declaración Universal de Derechos Humanos y los Pactos internacionales de derechos humanos.

Artículo 10

Deben adoptarse medidas para asegurar el pleno ejercicio y la consolidación progresiva del derecho al desarrollo, inclusive la formulación, adopción y aplicación de medidas políticas, legislativas y de otra índole en el plano nacional e internacional.

sarreraren banaketa zuzena lortzeko.

Neurri eraginkorrak hartu behar dira lortzeko emakumeek modu aktiboan parte har dezaten garapen-prozesuan.

Behar-beharrezkoa da ekonomia- eta gizarte-aldaketak egitea zuzengabekeria sozialak ezabatzeko.

2. Estatuak jendea bultzatu behar dute parte har dezan arlo guztietan, partaidetza hori baita garapenerako eta giza eskubide guztiak oso-osorik gauzatzeko eragile nabarmena.

9. artikulua

1. Adierazpen honetan aipatu garapenerako eskubidearen alderdi guztiak dira zatiezinak eta elkarri lotuta daude eta bakoitza interpretatu behar da eurok osatzen duten multzoaren testuinguruan.

2. Adierazpen honetan xedatutakoa ezin da ulertu Nazio Batuen asmo eta printzipioen kaltetan, ezta edozein estatuk, taldek edo pertsonak edozelako jarduera garatzeko edo edozelako egintza egiteko eskubidea duenik ere, horiek Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak eta giza eskubideen nazioarteko itunek ezarritako eskubideak urratzen badituzte.

10. artikulua

Neurriak hartu behar dira ziurtatzeko garapenerako eskubidea gauzatzen dela eta mailaz maila indartzen doala, ildo beretik, neurri horiek bildu behar dituzte neurri politikoak, legegileak eta beste izaerakoak, nazio-mailan nahiz nazioarte-mailan.